

Egunetako lana izan dute Cirque du Soleil konpainiakoez Nafarroa Arenan 'Crystal' ikuskizuna emateko. Ia ehun lagun ari dira. Izotz gaineko patinajea eta zirkua nahastu dituzte ikuskizun berrian, eta igandera arte ikusgai da Iruñean. Atzeko lanak bukatuta, atzo izan zen lehen saioa.

Eguzkiak urtzen ez duen izotza

Iker Tubía Iruñea

Hotz egiten du Nafarroa Arenan. Krask, krask, krask. Beltzez jantzita dauden muntatzaileen urratsak aditzen dira pista zeharkatzen dutenean. Krask, krask, krask. Kranpoiak dituzte zapatatzen, herenegundik izotz pista bihurtu baita Iruñeko pabiloia. Zist! Bat-batean bost patinatzaile sartu dira oholatza hormatuan, jauzi eta itzulika. Azken entrenamenduak dira; ordu gutxiaren buruan harmafla bete begirada izanen dute gainean. Zirkua iritsi da Iruñera: Cirque du Soleil. Dagoeneko egin dute lehen saioa, baina igandera arte eskainiko dute *Crystal* ikuskizuna.

Kanpoan dauden kamioietan ikuskizunaren irudia eta konpainiaren izena daude inprimaturik. 23 ibilgailu dira, ikuskizuneko material guztiak batetik bestera eramaten dituztenak. Barruan sumatzen da urduritasun puntu bat. «Gaurkoa eromena da; lehen egunean dena ongi dabilela egiaztatu behar dugu, dena bere tokian dagoela ikusi, eta denak prest gaudela ziurtatu», esan du Robert Tannion zuzendari artistikoak.

Pista zabal bat du atzean. Sabaitik zintzilik hamaika bozgorailu, proiektore eta foku. Hondoan hamar metroko izotzezko jauregiak jantzen du pista. Koreografia bat entseatzeari ekin diote bi lagunek. Haietako bat sabaitik jaisten diren bi zinta gorritik behera zintzilik dago; bestea izotz pistan, patinatzen. Bals batekin hasi dira. Gero, akrobazia eder batzuk, eta izotz dantza alde batera utzi dute, eta airean hegan egin. Bukatzean, koreografoa gerturatu zaie zuzenketari txikiak egiteko, azken detaila ere zizelkatu nahian.

Entrenatzeko beharra dute, izotz pista berria baita, eta agertoki berriari egokitu behar zaizkio. Bi egun behar izaten dituzte izotza egiteko. Gero, egunaren arabera aldatzen da pista, kanpoko tenperaturek ere eragiten baitute. Ikuskizuneari zehar ere aldatzen da temperatura: -10 graduan hasten dira, baina tenperaturak gora egiten du ikuskizunak aurrera egin ahala. Hala ere, artista batzuek bigunago nahiago dute, besteek gogorrago, eta haiei egokitzen ere saiatzen dira.

Entrenamenduen ondoren, izotz pista ongi mantentzeaz arduratzen diren langileak pasatu



Erronka beti zera da: zer egin dezakegu guk bi diziplina hauek nahastuta? Eta hori muturrera eraman»

Robert Tannion
Crystal-eko zuzendari artistikoa

«Batzuetan 5-15 segundotan aldatu behar dituzte jantziak; horregatik dituzte kremaileak alboetan»

Christine Achampong
Crystal-eko publizitate arduraduna

dira agertokiaren gainetik. Patinetako ahoek izotzean egindako zuloak eskuz estali ditu batek, eta zorua ongi lisatzeko *Pinguini* makina pasatu du beste batek.

Zirkua eta izotz gaineko irristaketa nahastu ditu Cirque du Soleil konpainiaren azken lanak. Batzuk irristaketan dira adituak, besteak zirkuko diziplinetan. Nahasketa «aberasgarria» izan da Tannionen aburuz: «Erronka beti zera da: zer egin dezakegu guk bi diziplina hauek nahastuta? Eta hori muturrera eraman». Akro-

SAIOAK



Gaur. 13:00etan.
Bihar. 17:30etan eta 21:30etan.
Etzi. 13:30etan, 17:30etan eta 21:30etan.
Igandean. 16:00etan eta 20:00etan.

bata batzuek ez zekiten patinatzen; beraz, ikasi behar izan dute ikuskizunerako. «Ez daude zirkua saio batzuk eta patinaje saio batzuk. Saioren nahasketa handia izan da. Bi diziplinak elkarrekin landuta *Crystal*-en kultura aberastu dute». Haien eskola propioa dute patinatzen ez zekitenentzat. Gainera, patinatzaile profesionalen artean Olinpiar Jokoetako txapeldunak ere badirela esan du Christine Achampong ikuskizuneko publizitate arduradunak.

la ehun lagun

Oholatza gainean 44 artista aritzen dira, 25 herrialdetakoak. Hemezortzi hizkuntza aditu daitezke kamerinoetan, baina ingelesa erabiltzen dute elkar ulertzeko. Hala ere, orotara ia ehun lagun aritzen dira lanean jendeak ikuskizunaz goza dezan. Logistikoa da erronka nagusia, zuzendari artistikoaren aburuz: «Izotza muntatzeko bi egun, gaineko guzia muntatzeko hamabost ordu eta *backstage* guzia. Gero bederatzita saioetatik hiru larunbatean dira, eta hori erronka mental handia da artistentzat. Desmuntaketa ere sekulako lana da».

Izotzezko jauregiko atea ireki eta ixten direla egiaztatu du beltzez jantzitako langile batek. Ondoren, sabaitik zintzilik dagoen trapezio bat hartu, eseri eta pistaren erdiraino arazorik gabe mugitzen dela ikusi du. Pistaren albo batean ordenagailuz inguratutik daude teknikariak, dena ongi do-





ala begiraten. Oholtzaren atzealdean ikuskizunean erabiltzen duten atrezzo guzria dago 20 metroko aretoan sakabanaturik: egongela bat, eskolako mahai eta aulkiak, izotzeko zuhaitzak...

Bitartean, artistak ez daude geladirik. Batzuk gimnasioko makinetan, beste batzuk lurtean luza-
ketak egiten. Musika jotzeko dena prest dute ere. Zuzeneko eta grabatutakoa nahasten dute. Nafarroa Arenan hiru lagun arduratzen dira zortzi musika tresna jotzeaz. Piano luzearen atzean, tinbal moduko baten gainean dago malabarista bat, pilotak gora beharrean behera botatzen, eta haietako bakoitzarekin erredoble luze baten kolpe bakoitza egiten. Magiazko mundu bat sortzeko prestatzen ari dira.

Alboko aretoetan garbigailu lerro bat bueltaka dabil, eta korridorean zapata eta patin guztiak daude lerro-lerro, nor bere izenarekin ongi gordeak. Zapatek iltze-

ak dituzte, patinatzen ez duten malabaristak-eta ez daitezen irristatu. Jantzien gelan ere jo eta su ari dira: ileordeak prestatzen, jantziak lisatzen, zapatak konpontzen... Montrealen eginak dira denak (Kanada): 600 jantzi eta 40 ileorde. «Jantziak aldatzeko errazak izan behar dira, batzuetan 5-15 segundotan egin behar dutelako; horregatik dituzte kremaile-
rak alboetan», esan du Achampongek. *Striper*-en antzera, kolpe batez ken daitezke.

Dena abiadura delako ikuskizunean; ez dago segundo bat ere galtzeko. Eta segundo horien gainean dantzan, orekan, saltoka eta biraka aritzen dira akrobatikak eta patinatzaileak. Ez dute inor hotz utzi nahi, baina ikusleei berokia eramatea gomendatu diete. Ordu eta erdiko makillaje saioa, neurri-
ra egindako jantziak, argiak eta musika *Crystalek* dir-dir egin dezan pistaren gainean. Eguzkiak urtu ezin duen izotzaren gainean.

1 **Zintzilik.** Bi artista zinta gorrietatik zintzilik, azken entseguan, kazetariak begira dituztela.

2 **Trapezioa.** Izotz gainean irristaka ez ezik, airean ere egiten dituzte akrobaziak.

3 **Pantaila artean.** Teknikariaren lana garrantzitsua da soinuak, argiek eta bideoak ongi funtziona dezaten.

4 **Artisauak.** Zapatagilea azken orduko lanak egiten. Jantzi guztiak neurri-
ra egiten dituzte Montrealen, baina tokian toki arduratzen dira konponketez.

5 **Eroso.** Bi artista beroketa lanak egiten, gorputza inork ez bezala tolesten.

6 **Zitu bizian.** Patinatzaile bat azken entrenamenduan, abiadura handia hartuta.

7 **Korapilaturik.** Bi artista trapeziotik behera zintzilik, azken eguneko entrenamenduan.

ARGAZKIAK:
JAGOBA MANTEROLA / FOKU

